

# Iriarteri buruz pare bat hitz

Ignacio Iriarte Zabala, lehiaketa honi izena ematen dion margolaria, Azkoitian jaio zen 1621eko urtarrilaren 16an, bere aitaren familia urretxuarra zen. Gaztetatik bere artearenganako zaletasuna ikusirik, lehenik Gasteizera bidaliko dute gurasoek; geroxeago Madrilera, eta hogeitabi urterekin Sevillarara iritsiko da. Frantzisko Herrera Zaharraren lantokian zortea probaturik, figurak baino paisaia errazago dominatzen duela konturatuko da, bere gai landuena bihurtuz. Lehenik 1646an ezkonduz, alaba izango du eta alargundu ondoren, bere bigarren emaztearekin, beste bost seme-alaba.

Inaziok ordea, arte ederretako akademia nahi du Sevillan eta horrelaxe fundatuko du Murillo, Valdez, Medina eta beste batzuekin akademia, pare bat ikasle edukiaz.

1670. urtean gaixo jarriko da, irailaren 27an, egun batzuk lehenago bere testamentuan "... soy de la villa de Azkoitia, en la provincia de Guipúzcoa..." idatzi ondoren, aberastasunik gabe eta zorrik gabe, mundu hau utzi zuen. Gaur egun Sevillako Eskola maisurik onenetarikotzat jotzen den margolari honek, hiri honetako katedralean hilobiraturik darrai.



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Guipuzkoa

**IGNACIO DE IRIARTE**

**40.  
KALE  
MARGO  
LEHIAKETA**

**CERTAMEN  
DE PINTURA**

**ABUZTUAK 17  
AGOSTO**

**AZKOITIA 2023**

**Azkoitiko Kultur Elkarte**

# ARAUAK

- 1/ Nahi duten denek har dezakete parte: gaia Azkoitia.
- 2/ Neurri, teknika edo zenbatasun aldetik ez da mugapenik izango aurkeztu daitezkeen lanentzat.
- 3/ Partehartzaile bakoitzak bere lanerako behar dituen osagaiez horniturik etorri beharko du.
- 4/ Lanak Azkoitiko Udal barrutian eta jende aurrean egin beharko dira.
- 5/ Lanerako gaien zigilatzea Portaleburu Erakustokian egingo da goizeko 9etatik 10ak bitartean.
- 6/ Bukatutako lanak Portaleburu Erakustokian utziko dira 15:00etarako.
- 7/ Epaimahaikoen erabakia eta sari banaketa erakusketaren hasieran 19,30ean.
- 8/ Aurkezturiko lanak Portaleburu erakustokian erakutsiko dira.
- 9/ Lanak jasotzeko aukera, irailaren 11tik 15era (goizeko 9:00etatik arratsaldeko 2:00ak arte) Udaletxeko Kultura sailean. (Bertan gelditzen diren lanak antolatzaileen esku geratuko dira)
- 10/ Lanek izan ditzaketen kalteen erantzule ez dira egiten antolatzaileak.
- 11/ Sariak: 2.550 euro gordinak.
- 12/ Saritu gabeko lanen prezioak ezin dute izan, sari txikiena baino altuagoak.

## OHARRA:

Saria jasotzen duten lanak, antolatzaileen esku geldituko dira.

Partehartzaileek bazkaria aukeran izango dute.

# BASES

- 1/ *Podrán participar en el mismo, todos los que lo deseen: Tema Azkoitia.*
- 2/ *No existirá limitación de dimensiones, técnica o número de obras a presentar.*
- 3/ *Los participantes deberán acudir provistos de los elementos necesarios para efectuar sus trabajos.*
- 4/ *Los trabajos deberán ser realizados al aire libre en el término municipal de Azkoitia.*
- 5/ *El sellado de materiales se realizará en Portaleburu erakustokia de 9 a 10 de la mañana.*
- 6/ *Los trabajos se entregarán en Portaleburu erakustokia antes de las 15 horas.*
- 7/ *El fallo del jurado se dará a conocer a las 19:30, al comienzo de la exposición.*
- 8/ *Las obras presentadas se expondrán en Portaleburu erakustokia.*
- 9/ *Recogida de obras: del 11 al 15 de septiembre, en horario de 9 a 2 de la tarde en el Departamento de Cultura del Ayuntamiento. (Las obras que se dejen quedan en manos del Ayuntamiento)*
- 10/ *La organización no se responsabiliza de los desperfectos que puedan sufrir las obras.*
- 11/ *Bolsa de premios de 2.550 euros brutos.*
- 12/ *El precio de venta de las obras no galardonadas no superará la cantidad mínima establecida en los premios.*

## NOTA:

*Las obras premiadas quedarán en poder de la Organización.*

*Los participantes tendrán opción de comida.*